

Maskarada

XVI. mendean Ingalaterran sartu zen, eta arrakasta handia izan zuen XVII. mendean. Mozorroak eta agertokiak ikusgarriak izaten ziren, eta alegoria aldetik oso landuak ziren. Maskarada-egilerik ezagunena Ben Jonson, gorteko olerkaria, izan zen, 1605-1631 urteetan. Hura erretiratu zenean, maskaradak literatura-balioa galdu zuen, eta ikuskizun huts bihurtu zen. Ukaezinezkoa da Maskaradak Balletean, Operan eta Pantomiman izan duen eragina.

Zuberoako maskaradak

Euskal Herrian, europar usadioarekin bat eginik, Zuberoan sartu zen XVI. mendean. Inauterietako igande guztietan gazteak bildu eta maskaradak prestatzen zituzten, eta herriz-herriz ibiltzen ziren mozerroz jantzirik. Euskal Herrian ezagunak ziren ofizio jakinetakoak ziren pertsonaiak eta taldeak. Dantzaz, musikaz, mintzoaz eta mimoaz baliatzen ziren lanbideak antzezteko. XXI. mendean oraindik bizirik diraude, eta orain dela hirurehun eta laurehun urte bezalaxe antolatzen dira.

Basabürüa eskualdeko Altzai, Urdiñarbe edo Atharratzek antolatutakoek ospea badute ere, urtero inauteri garaian eta lau hilabetean **Zuberoako herri batek** maskarada prestatzen du, lan horretan festa berezi bat sortuz.

Pertsonaiak

Normalean, 25 bat lagunek osatzen dute segizioa, eta bi alde kontrajarritan banatzen dira: alde batetik, **Gorriak**, dotore eta ordenatuak eta, fanfarreak banatuta, **Beltzak**, zikinak, baldarrak eta zaratatsuak. Maskaradako bost dantzari hoberenak, **Aitzindariak** deitutakoak, gorrien taldean daude: **Txerrero**, **Gathuzain**, **Kantiniersa**, **Zamalzain** eta **Entseinaria**. Batzuetan aitzindari beltzak ere izaten dira.

- **Gorrien Maskarada:**
 - **Txerreroa:** Muturrean zaldj buztana itsatsia duen makila du. Gerrian brontzezko sei zintzarriak daramatza.
 - **Gathuzaina:** Pantografo itxura duen instrumentuarekin edozer har dezake, publikoa gogaituz.
 - **Kantiniersa:** XIX. mendearen moduan jantzitako kantinera da.

- **Zamalzaina:** Gerrian zaldi gonadun baten itxura darama. Maskaradaren pertsonaia nagusia da, dantzaririk trebeena.
 - **Entseinaria:** Zuberoako banderaren zutoihala duena.
 - **Marexalak:** Zamalzainen errementariak, hiru edo lau. Patroiak, kurrika eta mailua ez ezik, larruzko amantala ere erabiltzen du.
 - **Jauna eta Anderea:** Jauntxoek dantzan egiten diren lanak zuzentzen dituzte. Gizonak praka janzten du, eta bastoi eta sable daramatza. Andreak zurizko soineko arina du.
 - **Laboraria eta Laborarisa:** Nekazariak, ilunez jantzita. Gizonak akuilua erabiltzen du; andreak, berriz, saskia.
 - **Kükülleroak:** Dantzari gazteenak. Bi lerrotan ibiltzen dira.
- **Beltzen Maskarada:**
 - **Xorrotxak:** Zorrotzaileak, patroia eta mutila. Erremintak zorrozteari ekiten diote. Buruan, katagorri diseatua duen kapela daramate.
 - **Buhameak:** Lauek zurezko ezpata handia dute dantzatzeko.^[2]
 - **Kauterak:** Sei dira, horietako bat (Bedezia) mediku-jantzita. Sustraiz egindako makilak dituzte, kaskabiloekin apaindurik daudenak. Arropa zahar eta txikitua erabiltzen dute, maila apala adierazteko.
 - **Khestuak** edo **Kherestuak:** Zamalzainen bi zikiratzaileak: patroia eta mutila, bearnera egiten dute.

Zatiak

Maskaradak hiru parte ditu, egun sinplifikatuak daudenak:

1. Barrikadaren haustea

Behin herrira helduta, erakustaldia prestatzeko segizioa herrian zehar ibiltzen da. Arribadaren soinuari jarraituz, etxe nagusiak bisitatzen dituzte, non jateko eta edateko ematen dizkieten. Horrela, herriko nagusiak omentzen dituzte.

2. Ofizioak

Ofizioak deitzen zaio arratsaldeko saioari. Maskaradan parte hartzen duten ofizio bakoitzak. Zati honetan pertsonaia bakoitzak bere antzerki-dantza saioa egiten du, bere ofizioa ardatz duen antzerki-erritual bat eskainiz. Txorrotzek dute ofizio bakoitza kantuz aurkezteko ardura, plazari itzulika, eta ofizioen artean tarkekatzen dira dantzarien emanaldiak.^[8] Honela egiten du ofizioa bakoitzak:^[5]

- **Marexalak:** Zamalzaina ferratu behar dute. Hasieran gaizki eginen dute, eta ongi gero.
- **Khestuak:** Zamalzain zaldiaren zikiratzea antzezten dute. Lehenbiziko saioan ez dute lortzen eta nagusiak, haserre, mutila kaleratu du. Haren ordezt, Pitxu kautera hartu du laguntzaile, baina horrek lehengoa baino ezgauzagoa dela erakussten du. Izan ere, Zamalzainen ordezt, Kantiniersa harrapatu baitu zikiratzeko. Berrito mutila onartu eta, orduan bai, Zamalzain zikiratu dute. Lana amaitutakoan, barrabilak (bi patata) airean botatzen dituzte.
- **Txerrero, Gathuzain, Kantiniersa, Zamalzain eta Entseinaria:** Gabota dantza egiten dute, biribilean egiten den dantza korala.
- **Xorrotxak:** Plazan sartu, abestien bitartez agurtu eta Jaunaren ezpata zorroztea izanen dute lantegia. Khestuek bezala, hiru saiakera behar izango dituzte. Lehendabizikoan nagusiak mutila kaleratuko du, bigarrenean Pitxu kontratatu eta okerrago eta, hirugarrenean, berrito mutila onartuta, lana ondo burutuko dute.
- **Buhameak:** Plazan sartzten dira zarataka. Beren zurezko ezpatak erabiliz dantza basa egiten dute eta, ondoren, nagusia bere balentriak adieraziz plazan zehar ibiliko da.
- **Aitzindariak:** Nagusien aurrean godaleta bat kokatu eta bakoitzak, haren gainean, Godaleta dantza egiten du. Oso dantza zaila da, dantzari bakoitzak godaletaren gainean salto egin behar duelako, hura bota barik.
- **Kauterak:** Gutxienez lau galdaragilek antzezten dute, tartean **Kabana** patroia eta **Pitxu** mutila. Plazan zarata handia atereaz sartzten dira. Kabanak, liburu handi bat eta zartailua eskuetan dituela, mutilari galderak egiten dizkio zein herritan dauden jakiteko. Jaunaren pertza zaharra konpontzea dute eginbeharra. Lana ordaintzeko, Jaunak sos batzuk airean jaurtiko ditu. Buhame eta kauterek jauzi egiten dute dirua hartzeko eta Pitxu, azpian harrapatuta, hil egiten da. Zorionez, Bedeziak egindako ebakuntzari esker, Pitxu berpiztuko da. Ebakuntza aurrera joan ahala, Pitxuren gorputzetik mota

guztietako objektuak ateratzen dituzte, eta Kabanak mutilaren testamentua irakurtzen du.

- Batzuetan **Jauna-Andereak** eta **Laboraria-Laborarisak** beren dantza izaten dute maskaradaren barruan.

3. Jolasak

Ofizio-joko horien artean egiten dituzte dantza ezberdinak. Batez ere aitzindariak, eta dantza batzuk beste arizale batzuek ere bai. Branlean maskaradari guztiek parte hartzen dute eta ikusleen artetik ere jendea sartzen dute sokara. Azken jauzietan ikusleak ere gonbidatzen dituzte beraiekin dantza egitera. Egiten dituzten dantzetako batzuk, hona:

- Barrikada haustea. Goizean egindako bera egiten dute arratsaldeko ofizioen emanaldi hasieran. Plazari itzulia egin eta ondoren, gorriek banan-banan (edo talde txikietan) dantzatzen dute. Beltzek beren estiloko sarrera egin, eta azkenik txorrotzek kantuekin biribiltzen dute barrikadaren haustea.
- Gabota. Aitzindariak egiten duten dantza da, gehienetan biribilean, baina lerro irekian ere bai.
- Bralea. Soka-dantza da, eta hiru zati ditu:
 - Kontrapasa. Pertsonaiek 2/4 aldiko konpasa duen doinua, kate irekian dantzatzen dute, Jauna buruan eta Laboraria atzean. Entseinaria aurrean doa zuzenduz eta bandera eskuz aldatuz. Txerrero, Gathuzain, Kantiniersa eta Zamalzainek biribil barruan dantza egiten dute elkarrekin.
 - Braletik jauzia: Hasieran pertsonaia guztiek ez dute dantzatzen, Entseinaria eta nagusiak tartean. Gero, bakoitzak bere abilezia erakusten du banan-banan.
 - Karakoiltzia: Katean dantzatzen den dantza geldoa da, pauso bakarra duena.
- Godalet-dantza.
- Dantza-jautziak. Aitzina Pika eta Moneinak ohikoenak dira, baina beste jauzi batzuk ere egiten dituzte. Moneinak luzea da eta urratsak kantatzen dituzte gehienetan. Aitzina Pika jauzi motza da, beraz, ez dituzte urratsak esaten gehienetan, eta normalki urrats hauekin dantzatu ohi da: aitzina pika (4 aldiz), ximple laueta, zeina (2), ezker-eskuin, ezker eta hiru, eskuin.

KAUTERAK

Zuberoako maskaradako beltzen taldeko pertsonaiak dira. Nagusia **Kabana** da, **Pitxu** mutila, eta **Pupu, Fripu** edo **Bizunu** deitutako beste batzuk ere izaten dira. Lanbidez perzkinak dira, eta jaunaren pertza petatxatzea da beren joküa. Oso bihurriak dira, eta ikusleak maiz zirikatzen dituzte.

Arropa zarpailez beztiturik agertzen dira: kapela beltzak, animalien adarrekin edo hegazti hegoekin edertuak, beroki beltz luzeak eta bortzegiak. Aurpegiak beltzez zikinduak edo mozorroz estaliak izaten dituzte. Bizkarrean, hizki handiz idatzirik, kauteraren izena eta *bertuteak* agertzen dira. Esate baterako: *PITXU/ Lanik, comme un fou/ Edaten ere beaucoup/ eta neskatilekin pas du tout,*¹ *PHUZU/ Pintukari/ Hogakari/ Urdankari/ Zilokari/ Uhuñ* edo *MATXU/ Azkarki/ Txerkatzen/ Xiloak* eta *Urzoak*.